

Koloreen abezedarioari jarraikiz

OIHARTZABAL BIDEGORRI, Beñat
Euskaltzain osoa

Baionako auzapez jauna,
Euskaltzainburu jauna,
Agintari Jaun-Andereak,
Jaun-andereak,
Euskaltzain lagunak.

A beltza, E zuria, I gorria, U berdea, O urdina: bokalak Noizbait kontatuko ditut zuen ezkutuko sortzeak

Ez zakizut, adiskidea, frantses letretako irakasle zinen denboran, ikasleei, Arthur Rimbaud olerkariaren poemak erakusten ote zenizkien, eta *Bokalak* deitzen den sonetoa aztertzen ote zenuen haiekin; dakizun bezala, hartarik atera baitira bokal koloratuak bihikatzen dituzten hitz horiek. Halaber, ez zakizut, Rimbaud-ek, egiazko sinestetek bezala, bokalak koloretan ikusten ote zituen, ala letren eta koloreen arteko lotura horiek bere poeta irudime-naren bidez sortzen ote zituen. Nola ere baita, euskalgintzako zure ibilbidea hemengo jendarteari aurkezterakoan, beldur bainintzen kronologiak terren-ta aire bat emanen ziola ene solasari, pentsatu dizut menturaz laguntza eska niezaiokeela olerkariari, hark eskaini ereduaren arabera josiz, ele hauek ari-nagoak, agradosagoak ere beharbada, izan dakizkien hemengo entzuleei.

Zure hitzaldian leku bat Baiona, eta lan bat, ohiko euskal hizkeren atlasa, aipatu dituzu oroz gainetik biek toki berezia baitute zure gogoan

eta bihotzean. Ordea, baitakit besterik ere badela aipa zenezakeelarik egin gabe utzi duzunik, olerkiko bost koloreak bokal abezedario gisa baliaturik, honako bidean zuretzat munta izan duten beste izen batzuk ekarriko dituzut plaza honetara. Esperantza dizut gisa horretan hobeki jakinen dutela egun gurekin batean bildu diren beste euskaltzain eta adiskideek, zein bidetarik ibilirik heldu izan zaren hemengo jendartekora eta azken bokalera heltzean, puska bat handik, beste bat hemendik, bat-bederak euskaltzain berriaz kolorezko irudi bat osatzen ahalko duela. Goazen bada.

A, beltza

Olerkian aipatzen den lehen kolorea beltza duzu, eta kolore izen hau ardura euskaldunek, dakizun bezala, ez dizugu erabiltzen gauza onik seinalatzten duten ingurumenetan, adibidez, mesfida ohi gaituzu xede beltzak di-tuenaz, eta halaber, egun beltzek ez ohi zigutezu oroitzapen onik gogoratzen.

Bokalen olerkian, Rimbaud-ek *a* letra, hain zuzen, beltz-beltza ikusten zizun, *ustel gose diren euli hastial* batzuen idurian. Aitzitik, beste zenbait sinestetak bestelako kolorerik eta sentipenik lotzen ziotezun frantsesaren *a* bokalari. Entzun, adibidez, Ferdinand de Saussure hizkuntzalariaren lekukotasuna: *Frantsesean a, a bokala, zuhaila da, horiaren aldera ere hurbiltzen delarik : gai trinko batez egina da, nahiz ez den lodia ; joa denean aise kraskatzen da, hala nola koadro batean tiratua den paper batek egiten baitu.*

Goiz honetako zure abezedario berezian, bi izen zakarkiguzuz *a* bokalak, ez bata, ez besteak, ez baitigu Rimbaud-ek aipatu beltzura hura gogoratzen: ez *agot* izenak, ez eta *Allières* jende deiturak ere, horiek baitira orain elepide emanen didaten bi hitzak. Has nadin lehenbizikotik.

Ez dizu aspaldi jakin dudala, zuhaurk oharkabeaz bezala salaturik, aitararen aldetik segurik, *agot* etorkia duzula. Alabaina, zure aitatxi, Eugenio Vi-degain, Erratzun sortua zuzun, Bozaten, *agoten* auzoan. Beharbada *agoten* markari ihes egiteko esperantza gogoan, Elbetar gazte batekin ezkondurik,

muga iragan zizun, eta Alduden zenbait urtez gelditu. Han, Alduden, sortu zuzun Paul, zure aita, buraso gazteak etxetiar ziren eiheran. Zorigaitzez, hona heldu eta, franko laster hil zuzun Eugenio, Aldude utzirik Azkaraten zelarik, 1919an, eritasun batek eramanik.

Baztandar etorkiz, aldudar sortzez, azkaratear haur adinean, azkenean, gaztarora heltzean, baionestu zuzun zure aita. Ezkondu ondoan ere, hiri honetan biziko zuzun gero, ofizioz tindari izanik, Mailuxa zure amarekin batean, zu eta beste hiru seme-alaba, zu baino gazteagokoak altxaturik. Zuk ere, zure aldian eta zure moldean, aitaso hark bezala, muga iragan zenuen, kontrako bidetik haatik, eta nafar mendietarik harago, Bizkaira joanik. Denbora guti egon bazinen ere, han, Berrizen, zenuen Miren, zure emazte beharra, ezagutu.

Ikasle gaztea zinenean, Frantses hizkuntzaren historia harekin ikasi baitzenuen Tolosan, sekula kontatu ote zizun Allières-ek frantsesezko *ladre* hitza, Larramendiren arabera, euskarazko *lander* hitzetik heldu zela, hain zuzen, euskaldunek, agotez mintzatuz, hitz hori erabiltzen omen baitzuten?

Ez dizut uste nehor beltzurika plantatuko den hemen, *Jacques Allières*-en izena entzutean, eta bidezkoa zuzun, nik uste, ihardespren honetan gogora nezan, hura izan baitzen euskalaritzako bideetan hastapeneko ikerlanetan gidatu zintuena. Alabaina, 1982an, hura zuzendari zenuela egin zenuen zure lehen ikerketa, Alfonsa Rodriguez jesuitaren idazlan baten 18. mendeko euskarazko egokitzapena aditzaren aldetik azterturik.

Pentsa zaitekezu, delako liburua Bonapartek ekialdeko baxenabarrera deitu zuen euskalkian idatzia zelako hautatu zenuela ikergai gisa, hitz batean, zuk gaztean bereziki entzun zenuen mintzamoldean emana zelako, eta, beraz, hango ohitzaren arabera, osoki zukako mintzoan. Hain zuzen, nahiz enea ez dudan zukako solasketa hura, hartaz baliatzen nauzu orain zuri ihardesteko, egun holako ekitaldi batean entzutea laketuko zaizulakoan. Eta barka, zuk gaztean bezala doi bat prusianoki, euskara batuaren plenguak ematen baitizkiet zuk idazlan hartan hain hurbiletik ikertu adizkera eder haiei. Euskaltzain izateari datxizkion kargen barne dituzu holako beharkizunak!

E, zuria

Bokal koloratuen olerkiko birden kolorea zuria duzu, Rimbaud-ek *e* bokalarekin lotzen zuena, hots, Astarloarentzat urguritasuna eta ezitasuna adierazten zituen letrarekin. Mardo, laño, nahiz bere izatean tieso, gogoan dukezu goiz honetako abezedarioan *e* letrak dakarkigun oztibartar poeta. Asmatua dukezu nortaz ari naizen: Manex *Erdozaintzi-Etxartez*, bistan duzu.

Letretako estudioen egiteko Tolosara joan eta ezagutu zenuen zuk Erdozaintzi-Etxart, han baitzegoen orduan Akitaniako Frantziskotar gazteen arduradun. Nahiz ez zuen oraino lanik argitaraturik, bazun hamar bat urte hasia zela olerki idazten, gero *Hinki-hanka* izenburuko liburuan argitaratu baitziren haietarik batzuk.

Zu gazte-gaztea izanik oraino, harekin euskal mundu zabalago baten ezagutza egin zenuen, ber denboran Euskal Herriak bizi zituen minei ere ohartuz. 1968ko gertakarien garaia zuzun, laster Europa guzia asaldarazi zuten Burgosko auzia, eta honen ondokoak, gertatzekoak zituzun. Nahas-mendu garaiak batzuentzat. Jazarpen eta esperantza garaiak beste batzuentzat, Europa guzian, eta Euskal Herrian ere bai, zuhaur ere, Manex bere moldean bezala, jazarle haien gogaide zinelarik.

Baduzu, *Populu bat xutik* izeneko olerki bat, Manexek, zu harekin zenbiltzan urteetan, idatzi zuena, ondoko urteko gertakariak bideratuko zituen giro utopiazalea gogo kartsu eta zabaleko euskaldun baten ikuspegitik, aitzinetik itxuratzen duena. Fedezko esperantza eta lotsa zerbait ere ageri duzu haren hitzetan. Haietarik batzuk gogora ditzadan: 1967koak dituzu, zuk hoge urte zenituen:

*Munduko gorabeheretan eta gertakarietan
alhatzen dut izpiritua.
Eta nahi dut barnago sartu
Sortzen ari den mundu honetan
Atzokotik sortzen ari den mundu honetan.
Halako herabe batekin haatik
Ezin dezakegulakotz aitzinetik erran
Nolakoa izanen dituen bere aztura eta molde berriak.*

Holako herabe batekin haatik
Baina ere bozkarioetan
«Esperantxetan»
badakidalakotz mundu berri bat sortzera doala!
Eta nere baitan sumatzen dut
Kitzi-kitzi
Euskaldun berri bat sortzen
Euskal populu berri bat itxura hartzen:
Europar!
Munduan!

I, gorria

Hiru kolore baizik bereizten ez diren mintzairetan, beltzaren eta zuriaren ondoan, gorria agertzen omen duzu. Hala ziozu Joseba Sarrionaindiak koloreez egin dituen zenbait gogoetatan. Piarres Larzabalek ere baziozun hiru kolore horiek, kolore kardinalak gisa batez, euskalki guzietan hitz berak erabiliz adierazten ditugunak, eta gure toki eta etxe izenetan maizenik aurkitzen ditugunak, direla euskal etorkiari barnenik lotuak direnak. Bada, beltzaren eta zuriaren ondotik, gorria duzu Rimbaud-en olerkian izendatzen den kolorea ere, hark *i* letrarekin lotzen zuena.

Zure abezedarioan, *i* letraren bidez ateratzen zaidan hitza IKAS duzu: aditz bat. Aditz bat, gure artean maiz gertatzen den bezala, gero elkarte-izen gisa ere baliatu izan dena aspaldi.

1980 arte, zure ibilbidearen lehen partean, elkarte hartan bereziki lan egin zenuen, eskoletako euskararen irakasbidez arduraturik. Zu, alde bate-tik, Baionako ikastetxe bateko irakasle izanik, eta beste aldetik, IKASeko idazkaria, hurbiletik ezagutu zenituen mundu hartako nekeziak eta trabak. Lankide zenituen orduan, besteak beste, J. Haritschelhar, geroxeago Euskaltzaindiko lanetan eta unibertsitatekoetan ere atzemanen zenuena, eta Manex Goyhenetche, idazkari ardura zure ondotik hartuko zuena IKASen, eta egun, den lekuan delarik, hemengo euskaltzale anitzek bihotz zimiko batekin agurtzen duguna.

IKAS elkartearen lan eginez, zuzenean parte hartu zenuen urte haietan euskararen inguruan sortua zen gizarte mugimenduan, baita, Pizkundea ize-neko batasunaren bitartez, mugaz alde honetan, euskal kulturaren munduaren egituratzeko egin ziren lehen entseguetan ere. Baina 80ko hamarkadaren hastapena zuzun, eta orduko hasia zinen ikerketa lanetara buruz itzultzen, dozena bat urte geroago utzi Tolosako Unibertsitate berriz abiatuz, eta han Allières berriz atzemanik. Unibertsitatea ordea, ondoko kolorearen aipagaia duzu, eta berehala hartara jauzi eginen dizugu.

U, berdea

Kolore hori berdea duzu, Rimbaud-ek markatu bidetik joanez, *u* bokalera garamatzana.

Berde izenak, hemen aipatzen ditugun beste kolore izenek ez bezala, latin etorkia agerian ditu. Haren ahalez edo, Bizkaian, Sabino Aranak, ahal bezalako analogia bati esker, *orlegi* hitza asmatu zizun haren ordezkatzeko, eta hemen gairi, beste batzuek, Etchepare medikua bide erakusle izanik, *musker* hitzaren erabilera ber helburuarekin hedatu zitezun. Kolore honek, hitz batean, jakintsu aire bat badizu gure artean, eta ezin hobeki heldu zaiozu *u* letrak ekartzen digun *unibertsitate* hitza, zure abezedarioan, nola ez, agertu behar zuena. Alabaina, Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko irakasle, Frantziako Unibertsitateetako kontseiluko kide, eta honen barnean, hain zuzen, eskualdeetako mintzairak eta kulturak biltzen dituen baztordeko lehenburua izanik, ez zitekezun bestela gerta.

Ez dizu aspaldi euskal ikasketetan unibertsitateko ikaskintza-titulu guziak ematen direla Frantzian. Hogei bat urte doi-doi, eta zuhaur ere orduantsu sartu zinen unibertsitatean. Denbora hartan, Jean-Baptiste Orpustan eta Txomin Peillen ziren unibertsitateko euskal ikasketen arduradunak. Zerbait urteren buruan, zuk eta Aurelia Arkotxak hartu zenuten ardura hori, zeinek bere unibertsitatean, erreformaz erreforma dabilzan egitura horietan ahal bezainbat euskararen tokia defendatuz, legezko ofizialtasunik gabe, hementxo euskaldunen kopurua kontuan izanik, ez baita buruhausterik eta behaztopabiderik gabeko egitekoa.

Unibertsitatean, ordea, irakaskintzaz gainera, ikerketa ere baita, sail honetan ere ari izan zara. Solasak ikerlanen gaia ekarki, ezin nagokezu egun zure doktore tesiko ikerketa aipatu gabe. Oztibarreko kabala hazkuntzako hiztegia zuzun haren gaia eta duela hogeitaz urte pasa aurkeztu zenuen, J-L. Fossat eta J. Haritschelhar zenituelarik zuzendariak. 2000 orrialde baino gehiago dituen lan gaitza, Oztibarreko kabalen inguruko hiztegia eta adierazmoldeak biltzen, sailkatzen eta ikertzen dituen.

Orduz geroztik, ikerlanak segitu dituzu, bai Euskaltzaindian, G. Aurrekoetxearekin batean, haste-hastetik bideratu duzun *Euskal Herri Hizkeren Atlasaren* egitasmoan oroz gainera, bai unibertsitateko ikerketa egituretan ere, hala nola *Atlas Linguarum Europae* bezalako nazioarteko ikertaldeetan. Baita, azken hamar urteetan bereziki, IKERen ere, zure gain izan baituzu *Lapurdum* aldizkariaren argitaratze lana, eta ikerlan baliosak ere egin baitutuzu hor, hala nola Bourciez eta Sacaze jaunen bildumetako euskarazko testu zokoratuen ingurukoak.

O, urdina

Rimbaud-en sonetoaren azken kolorea, urdina dizugu, poetak *o* bokalari eratxekitzen ziona, hots, Astarloak goitasun fisikoaren edo abstraktuaren adierazle gisa itxuratzen zuen letrari. Patziku Perurenak, ordea, koloreek euskaraz dituzten konotazio desberdinak aztertuz egin duen liburuan, kolore honetaz baziozu euskarazko kolorea dela, eta ez dagokiola kolore zehatz ongi mugatu bati, *azul* edo *blu* ondoko erdareari hartu hitzak bezala.

Arteko egoera hori, nik uste, berdin agertzen dizu Garazi eta Amikuzeren artean kokatua den *Oztibarrek* ere, zure bihotzean duen lekuagatik, hartaz hizño bat erran gabe ezin baikaudeke goiz honetan. Izan ere, zure ama, Mailuxa Castet, zortzi haurrideko laborari familia batean han sortua zuzun, Izuran. Bere aitamak ere Oztibarren sortuak zitizun: aita Arrozen, ama, Mariana Hitta, Jutsin.

Tipian eta gaztean, maiz martine egin behar izaten zizun Mailuxak, orduko etxetiar familia anitzek bezala: Izuratik, Jutsira, hemendik Larzabalera, hortik parti berriz, Pagolara edo beste norabait, eta, azken buruan, Arhan-

tsusira. Arhantsusi herrixka ttipia duzu, doi-doia hiruretan hogeita hamar biztanle dituen egun, ehun bat pasa duela berrogeita hamar urte, gaztean han zenbiltzalarik. Larzabaletik Donapaleura doan bideari hurbil, Amikuzeko atean, Zuberoako mugaren ondoan hango ur handiaren hegian, hantxe zuzun azkenean zure izeba etxetiar gelditu zen laborari etxea: Zolakia, Arhantsusiko zubia iragan eta, berehala eskuinean pausatua. Udan bereziki, Baiona utzirik, han egoten zinen bakantza denboraren iragateko. Han zenuen bereziki euskaldungoaren lekukotasuna zure baitaratu. Eta, halaber, han doi bat baserritartu baiones gisa zegozkizun hiritar manerak. Hitz batean, zure hitzaldian erakustera eman diguzun bezala, Baiona izan bada zure sor eta hazlekua, barnagoko erroak urrunago dituzu, Baztango agoten auzo hartako inguruetan aitaren aldetik, Oztibarren ere amarenetik.

Azken hitza

Azken hilabete hauetan, biziki aipatuak izan dituzu Rom populuko jendeen aurka Frantzian egin diren bortxazko kanporaketak, mundu bat asaldarazi dutenak. Dakigunaz, Euskal Herrian ere, Europako beste leku frankotan bezala, iragan mendeetan izan dituzu bereizkeria bortitzak, bai hemen *buhameak* deitzen ziren romen aurka, eta baita lehenagotik, menturaz are molde itsusiago batean, agoten kontra ere.

Ez zakizut lehenbiziko agot semea zaren Euskaltzaindian sartzen dena. Jakizu, ordea, plazer dudala, eta berdin beste euskaltzain lagunek ere etorki hartako norbait sartzen baita egun Euskaltzaindian. Eta ez zoko bateko ate ttipitik denboran elizetan gertatzen zen bezala, baina, kolorezko bokalek bidea irekirik, zure Baiona maiteko Herriko Etxeko ate nagusitik.

Ongi jin !